

2020KO URRIAREN 29AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO BATZARRALDIAREN AKTA.

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bederatz

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hogei.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa.

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

UDALBURUA: AITOR ALDASORO ITURBE

BILDUAK:

EAJ-PNV

- AITOR ALDASORO ITURBE
- LEIRE ARTOLA UGALDE
- MARIA LUISA VALLÉS FERNÁNDEZ
- FRANCISCO JAVIER MATARRANZ RICO
- MARIA ELENA RUIZ ZABALA
- EDORTA DIAZ DEL RIO
- JON OLANO ARRESE
- ADUR UGARTEMENDIA LEUNDA
- AMETS ARROSPIDE ZUBELDIA
- AINARA AYESTARAN ALDASORO

Beasaingo EH Bildu

- NEREA MANZISIDOR MENDIZABAL
- HASIER AGIRRE ELKOROBerezibar
- YOLANDA HERNANDEZ RODRIGUEZ

- JOSEBA MIKEL OLANO GUEMBE
- AITOR URDANGARIN IRASTORZA

Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

- EVA ALVAREZ ATANES
- ANGEL REDONDO FERNANDEZ

IDAZKARIA: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

Bileran, LURDES ALEGRIA LASA kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2020-10-29

Aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoenez.

2.- ANTOLAKUNTZA BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- COVID19AREN ONDORIOEI AURRE EGITEKO NEURRIEI DAGOZKIEN KREDITU GEHIGARRIAK ONARTZEKO B20/1103 EBAZPENAREN BALIOZKOTZE PROPOSAMENA 2020CRAD0015

Ezagutzera eman da 2020-10-16ko Alkatearen proposamena:

AURREKARIAK

1.- Maiatzaren 12ko, Udalak Finantzatzeko Foru Funtzagarriak 2020an egin beharreko konturako ordainketak aldatzen dituen eta toki-erakundeentzako aurrekontu eta zerga arloko hainbat neurri ezartzen dituen 3/2020 Foru Dekretu-Arauak bere 2. Artikuluan kreditu gehigarriak onartzeko, ondorengo aparteko araubidea ezartzen du:

“1. Toki-erakundeetan, Covid-19aren ondorioei aurre egiteko neurriei dagozkien kreditu gehigarrien espedienteak tokikorporazioko lehendakariaren dekretu edo ebazpen bidez izapidetuko dira, eta ez zaizkie aplikatuko Gi puz koako Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan aipa tzen diren aurrekontuen erreklamazioari eta publizitateari buruzko arauak.

2. Dekretu edo ebazpen horiek hurrengo Osoko Bilkuran baliozkotuko dira; horretarako, gehiengo soil baten aldeko botoa eskatuko da eta, ondoren, Gi puz koako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara tzea.”

2.- COVID19aren efektuei aurre egiteko neurriei buruz, diruzaintzako gerakinarekin finantzatzeko ondorengo kreditu gehigarriak onartu dira B20/1103 Alkatearen Ebazpenaren bidez:

Aurrekontuko kontusaila Partida Presupuestaria	Kontzeptua Concepto	Kredituak Créditos		
		Egunoak Actuales	Aldaketa Modificación	Behin betikoa Definitivo
0110.227.311.00.99	Indemniz.: kontratu eteteak COVID19	23.771,00	6.700,00	30.471,00
0241.480.231.51.01	COVID19: zaintza eta kontzi. laguntzak	0,00	15.000,00	15.000,00
0243.471.433.10.01	Dirulag. Merkatariei COVID19: bonoak	150.000,00	90.000,00	240.000,00
GUZTIRA / TOTAL		173.771,00	111.700,00	285.471,00

Aipatutako artikularen 2. atalean xedatutakoa kontutan izanik, Udalbatzari egiten zaio ondorengo

PROPOSAMENA

Lehenik. - B20/1103 Alkatearen ebazpena baliozkotzea.

Bigarren. - Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea agintzea.”

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

b.- KREDITU ALDAKETA. KREDITU GEHIGARRIEN ALDAKETA, 16. ZENBAKIA. 2020CRAD0016

Alkate jaunaren ondorengo proposamenaren berri eman da:

“GAIA. - Kreditu Aldaketa. 16. Kreditu Gehigarrien Espedientea.

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastua egin beharra izanik eta hau finantzatzeko aurrekontu kreditu nahikoa ez dagoela kontutan hartuz, Alkatetzak honek Udalbatzari ondorengo Akordio Proposamena egiten dio:

1.- 16. Kreditu gehikuntzen bidez 423.897,50 euroko zenbatekoaz eta kreditu gehigarrien guztiz finantzatzen den kreditu aldaketa hasiera batean onartzea.

2.- Aipatutako akordioa jendaurrean jartzea, 15 eguneko epean bidezkoak diren alegazioak aurkeztu ahal izateko. Alegaziorik jasoko ez balitz, behin-betirako onartutzat emango da.”

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, aho batez ondorengo kredituak gehitzea erabaki da:

Zerrendatutako gastuak gauzatzea premiazkoa denez -horien gauzatzea ezin baita atzeratu-, zerbitzu horiek egiteko erritmoa eteteak edo, hala badagokio, horien kudeaketa mailak behera egiteak kalte handiak sortuko bailituzke, eta hauek finantzatzeko aurrekontu

kredituak nahikoak ez direla edo krediturik ez dagoela kontuan hartuz, proposamen hau egin da indarrean dagoen aurrekontu egiturari egokituta.

Aurrekontuko kontusaila Partida Presupuestaria	Kontzeptua Concepto	Kredituak Créditos		
		Egunoak Actuales	Aldaketa Modificación	Behin betikoa Definitivo
0390.227.163.00.01	Bide Garbiketa	1.063.000,00	106.300,00	1.169.300,00
0110.421.431.40.01	Tolosako Hiltegia	5.500,00	1.800,00	7.300,00
0110.470.420.00.01	Goieki kouta	140.000,00	3.200,00	143.200,00
0230.227.335.31.07	Beste enpr: itzulpen zerbitzua	10.000,00	10.000,00	20.000,00
0110.872.430.00.90	Goieki, S.A.: kapital zabalkuntza	0,00	302.597,50	302.597,50
GUZTIRA / TOTAL		1.218.500,00	423.897,50	1.642.397,50

c.- GOIERRIKO EKIMENA, S.A.REN (GOIEKI), KAPITAL GEHIKUNTZA.
2020IDDBO0031

Ezagutzera eman da Antolakuntza batzordeko proposamena, hau da:

“AURREKARIAK

1.- Udalak GOIEKI eskualdeko garapen sozietatearen bazkidea, eratu zenetik, hau da, 1993. urtetik.

2.- Udalbatza Osoak, 2006-06-29an, Administrazio Kontseiluan proposatutako kapitala handitzea erabaki zuen “bestelako zorrak” kontuaren kargura, hain zuzen ere Udalek, Sozietateak izan zitekeen galerak konpentsatzeko, egindako ekarpenei zegokienak.

3.- Udalbatza Osoak, 2007-02-1ean, Administrazio Kontseiluan proposatuta, bigarren aldiz kapitala handitzeko erabakia hartu zuen kredituak kartzelatzeko, 449.998,75 €koa eta baita ere onartu zuen Estatutuen 5. artikulua (capital soziala) aldatzea.

Horren ondorioz:

- Beasaingo Udalaren partaidetza GOIEKiko capital sozialean 160.064,33 €koa izatea pasatu zen eta akzio kopurua, 26.633.
- GOIEKiko capital soziala 510.104,76 €tan finkatua geratu zen, partaidetza soziala 84.876koa, partaidetza bakoitza 6,01 €koa izanik.

4.- Administrazio Kontseiluak, 2020-06-30ean, hartutako erabakiaren bidez berriz kapitala handitzea proposatu du, bi arrazoi hauengatik:

- *Sozietatearen kapitalaren banaketa egungo biztanleriari egokitzea, 14.237 akzio jaulkiz eta 85.564,37 €ko ekarpena eginez.*
- *Banketxeko maileguak bueltatzea banaketa eginez, egungo biztanleriaren estrukturari jarraituz. Hasiera batean 1.600.000,00 €-ko kapital-gehikuntza planteatu zen, baina COVID-19ren ondorioz sortuko diren finantza zailtasunengatik, zenbatekoa aldatzea eta 960.000 €-ko kapital-gehikuntza exekutatzea aurreikusi da.*

5.- Kapitalaren hazkuntzak Estatutuen aldaketa ere dakar, kapital sozialaren artikuluari dagokionean, baina Udalei aukera ematen zaienez ekarpen ekonomikoan bi epetan egiteko (%50^a 2020-12-31 baino lehen eta beste %50a 2021-07-31 baino lehen), Estatutuen aldaketa, haiek egin ostean, Administrazio Kontseiluak proposaten duenean izango da eta udaletako plenoak onartu ondoren, Sozietatearen Batzar Orokorak baieztatuko du.

Horren ondorioz, Antolakuntza Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Aipatutako lehenengo arrazoiengatik kapital hazkuntza onartzea, hau da, *kapitala handitzea Sozietateak dituen kredituen kontra lehentasunezko harpidetza eskubideei uko eginez.* Beasaingo Udalarentzat hazkuntza 27.706,10 €tan finkatzen da eta 4.610 akzio suposatzen dute.

Bigarren. Aipatutako bigarrenengo arrazoiengatik kapital hazkuntza onartzea, hau da, *ekarpen ekonomikoa eginez.* Beasaingo Udalarentzat ekarpen hori 302.597,49 €tan finkatzen da eta 50.349 akzio suposatzen dute.

Hirugarren. Dagokion kreditu aldaketa egitea aipatutako ekarpen ekonomikoa egiteko. Kapital gehikuntza ordainduko da, zehaztutako epeen barruan, proposatutako kreditu-aldaketa behin betiko onartzen denean.

Laugarren. Aipatutako hazkuntzak burutzen direnean, Beasaingo Udalaren partaidetza GOIEKI, S.A.ren kapital sozialean, %31,52koa izango da. Kopurua: 490.367,92 € eta akzio: 81.592.

AKZIO ZENBAKIA

Egun	Hazkuntza, Sozietatearen kredituekiko	Ekarpena dirutan	Guztira	Partaidetza
26.633	4.610	50.349	81.592	31,52%

BEASAINGO UDALAREN KAPITALA

Egun	Hazkuntza, Sozietatearen kredituekiko	Ekarpena dirutan	Guztira	Partaidetza
160.064,33 €	27.706,10 €	302.597,49 €	490.367,92 €	31,52%

Bosgarren. *Sozietatea osatzen duten udalerrri guztiek (18) ekarpenak egin ondoren, GOIEKiko kapital soziala, 1.555.670,47 €koa izango da eta akzioak, 258.847 izango dira.*

Seigarren. *Erabaki honen berri GOIEKlri ematea, beronen aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoen aipamena eginez."*

Alkate jaunak: "Dakizuenenez Udalak plan ekonomiko finatziario bat onartu behar izan zuen GOIEKIk zor bat zuelako eta legelariak esan ziguten GOIEKiko zorra Beasaingo Udalarari atxikitu ziotela herrien artean parte gehiena GOIEKIn guki dugulako. Horrek gure kontuetan desajuste bat ekarri zuen. Ikusita 18 herriena dela eta guri itsasten zaigula, formula bilatzen hasi ginan aurrerantzena horrelakorik ez gertatzeko. Irteeratako bat forma juridikoa aldatzea izango litzateke (sozietatea izatetik mankomunitatea izatea pasatzea), baina horretarako bere sarrereekiko %40 baino gehiagoko zorrik ezin du izan. Goiekiko sarrerak 1.140.000,00 €koak dira gutxi gorabehera. Beraz, %40tik behera koa izan zorra izan behar badu, esan nahi du herri bakoitzak %60ari erantzun behar dio. Hemen proposatzen den kapital gehikuntza da Beasaini dagokion %60 hori. Herri batzuen egoera COVID-a dela eta ez zen egokia eta eskatu zuten urtebete ordaindu beharrean, bi urteetan ordaintzean (bakoitzean %50a). Orain ordaindu egiten dugu baina 16 urteetan tokatzen zaiguna baino gutxiago ordainduko genuke, zorra amortizatu arte. Gero ere %40 hori ordaintzea geratuko litzateke bakoitzak duen partizipazioaren baitan."

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute. Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

3.- HERRITARRAK BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

a.- DIRULAGUNTZAK:

- **Covid-19-ak zaintza eta kontziliazioaren eremuan eragindako egoerak arintzeko laguntza lerroa.** 2020BOBE0005 2020MEPO0035

Ezagutzera eman dira onartzea proposatzen den ondorengo oinarriak:

1. XEDEA

Banakako pertsonen, familiei eta bizikidetzako unitateei, zainketen eta bateragarritasunaren arloan, laguntza ekonomikoak ematea, Covid-19aren ondoriozko egoerak arintzeko.

2. FINANTZIAZIOA

Udalak 15.000,00 euroko kreditua du, oinarri hauen xede diren diru-laguntzak finantzatzeko, 0241.480.231.51.01 COVID19: zaintza eta kontziliazio laguntzak kontusailen.

3. DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN EGOERAK

Diruz lagunduko dira ondoren aipatzen diren pertsonak zaintzeko egiten diren kontratazioak, kontratazio horiek Covid-19ekin zerikusia dutela eta pandemiaren hedapen komunitarioa saihestea dutela justifikatzen denean:

- a) 14 urtetik beherako seme-alabak, edo 21 urtera artekoak, baldin eta azken kasu horretan %33ko aniztasun funtzionala edo ezgaitasun aitortua badute.
- b) Mendekotasuna duten pertsonak, nahiz eta aitortutako mendekotasun-maila ez izan.

Seme-alaba izaerarekin parekatuko dira:

- a) Tutoretzapeko adingabeak
- b) Aldi baterako edo betiko hartutako adingabeak.
- c) Aldi baterako edo behin betiko zaintzapean dauden adingabeak.
- d) Adopzio aurreko bizikidetzarako zaintza eskuordetua duten adingabeak.

Gehienez ere 59 egun naturaletarako egiten diren kontratazioak bakarrik lagunduko dira diruz, baldin eta kontratazio horietan kontuan hartu badira mendekotasunak dituzten pertsonen zainketari buruzko indarreko araudia eta/edo hitzarmena.

Kontratazio horren kudeaketatik sortutako gastuak ere diruz lagundu ahalko dira, betiere diruz lagundu beharreko zenbateko osoaren % 10 baino gehiago ez badira.

4. ONURADUNAK

Laguntza hauen onuradun izan daitezke 2020ko irailaren 1etik aurrera kontratazioa formalizatzen den unean jardunean dauden langileak (norberaren edo besteren kontura), baldin eta telelanarik egin ezin dutela edota lanaldia aldatu ezin dutela frogatzen badute zaintza-lanak egiteko.

Zaintza partekatua izanez gero, bi langileak laguntzen onuradun izaten ahalko dira, epe bererako ez bada.

5. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. artikuluko a)-tik e)-ra bitarteko kasuetan adierazitako pertsonatakoren bat agertu, artatu eta zaintzen duena. 3.
2. Laguntzaren eskatzaileak Beasaingo udalerrian erroldatua egon beharko du eta zaindu beharreko pertsonarekin/pertsonekin bizi beharko du, diru-laguntzaren xede den egoerak dirauen bitartean.
3. Eskatzaileak zerga betebeharra eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak izan beharko ditu.
4. Dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtze a dakarren zigor-edo administrazio-arloko zehapenik jaso ez izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik jaso ez izana; horren barnean daude bi lege hauen arabera sexu-diskrimina- zioarengatik gertatutakoak: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea edo Emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.
5. Eskatzailea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan aurreikusitako beste edozein egoeratan ez egotea.

6. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- a) Eskatzailearen NAN, AIZ edo pasaportearen kopia bat.
- b) Filiazio, adopzio, tutoretza, harrerako zaintzaren egiaztagiria, ebazpen judiziala edo adopzioa dagoenean, ahaidetasunarena, edo laguntza-eskatzailearen eta lagundu, artatu eta zaindu beharreko pertsonaren arteko izatezko bikotea izatearena.

- c) Adingabeak eta/edo mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko egindako kontratuaren kopia.
- d) Bizikidetza-unitatearen diru-sarreraren egiaztapena: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kopia bat edo, aurkeztu ezin bada, lan-kontratua eta eskaera egin aurreko 3 hilabeteetako nominen kopia bat.
- e) Lagundu eta artatu behar den pertsona menpeko ahaide bat bada, mendekotasun-ziurtagiria, administrazio eskudunak emana, maila bakoitzeko mendekotasun-maila eta azpimaila zehazten dituen, Autonomia Pertsonalaren Sustapenari eta Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonen Laguntzari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean eta hura garatzen duten arauetan ezarritakoaren arabera.
- f) Lagundu, artatu eta zaindu beharreko pertsona desgaitasun edo % 33ko edo gehiagoko dibertsitate funtzional aitortu bat izanez gero, hori egiaztatzen duen ziurtagiri bat.
- g) Kontratazioak eragindako gastuengatik laguntza eskatuz gero, dagokion faktura aurkeztu beharko da.

7. LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak zehazteko, 2020ko irailaren 1a hartuko da kontuan. Laguntzaren zenbatekoa zehazteko, ondoko taulako baremoa hartuko da kontuan:

Bizikidetza-unitatearen diru-sarrerak	urteko Laguntza (kontratututako pertsonaren soldata gordinaren portzentajea)
0 - 20.000,00 €	% 100
20.001,00 € - 30.000,00 €	% 50
30.001,00 € - 40.000,00 €	% 20
40.001,00 € baino gehiago	EZ

8. ESKAEREN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan ezarritako laguntzak bateragarriak izanen dira beste entitate eta erakunde batzuek emandako beste edozein laguntzarekin.

9. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da eta 2020ko abenduaren 30ean bukatu.

10. ESKABIDEAK AURKEZTEKO MODUA ETA TOKIA

Laguntzak jasotzeko eskabideak Beasaingo Udaletxean aurkeztu ahal izango dira, honela:

- On-line, www.beasain.eus webgunearen bidez.
- Zuzenean iGunearen bulegoan.

11. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Kontuan harturik laguntza hauek emateko kreditu nahikoa dagoela, 5. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emanen zaizkie.

Berdintasunaren azpiarloari dagokio oinarri hauetako aurretiazko laguntzak kudeatzea. Teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzeaz. Laguntzak eman edo ukatzeko, alkateak ebazpena emanen du. Ebazpen hori hamar egun balioduneko epean jakinaraziko da.

Diru-laguntza emateko ebazpena eman ondoren, ordainketa 2021eko urtarrilaren 31 baino lehen eginen da.

12. OINARRIAK ARGITARATZEA

Oinarri hauek, Osoko Bilkurak onetsi ondoren, BDNSra bidaliko dira eta ondoren GAOn argitaratuko dira.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros estamos a favor de estas ayudas. Es una medida que creemos que es positiva, porque en la estado de alarma muchas personas han tenido que solicitar excedencias para el cuidado, resultando sus salarios mermados. Creemos además que puede ser un documento vivo, es decir, que la subvención para este año, según la acogida que tenga, pueda acordarse nuevamente para el próximo año.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Bai aurtengorako ere beste bat onartu daiteke 15.000,00€ baino gehiago behar bada. Kontuan da oraingoz ez dakigula zenbat jendeentzako izango den eta balioa zein izango den. Ikusiko dugu abenduaren 31 arte zein bide egiten duen.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Gure ados gaude. Horrela azaldu ginan batzordean eta pandemia hasieratik dirulaguntza lerro hau eskatu genuen. Proposamenaren inguruan gure ekarpenak egiten genituen, baina proposamena bere horretan ekarri da plenora. Batzordean esan zitzaigun aztertuko zirela eta jakin nahi dugu gure ekarpenak zergatik ez diren kontuan izan. Guk 20.000,00 € izatea proposatzen genuen. 12 urtetik 14 urtera igotzea eta baremoa.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Urteei dagokionean legea egon daiteke. Jaurilaritzak ateratzen dituen dirulaguntzen kopuru eta baremoak antzekoak direla esango nuke. Beste udal batzuetan ere horrela onartu dituzte. Egia da 12 urtetik gora dependentzia duena ere egongo dela. Printzipioz 12 urte ez zaigu gaizki iruditzen. Ikusi behar duguna da ea beharretara gerturatzen garen. 40.000,00 €tik gora kobratzen duenari, dirulaguntza ematea ez dut ikusten. Oker ez banago planteatzen zenuten 40.000,00 €tik 60.000,00 €ra, %20a. Gure artean hitz egin dugu eta ez dugu ikusten.”

Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu): “Proposatzen genuena zen %20 horren franja izatea bereziki aiton-amonekin ez uzteko umeak eta horrekin lortzen dena da lanpostuak sortzea. Arrazoa hori zen. 14 urtekoari buruz esan, autonomia bat izan dezaketela baina etxean geratu behar badu gaixo dagoelako, ez da egoera normal batean bezala. Bakardade horretan egon beharrean, laguntza izatea.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Linea bat irekitzen ari gara, baina ez dakigu zein harrera izango duen. Dugun datua da, 0 urtetik 3 urte bitartera Gipuzkoan, horrelako dirulaguntzetara 34 familia apuntatu direla. Ez dakit asko edo gutxi den baina, datu bat da. 14koa gaixotasun batekin esaten duzu baina, 16koa ere gaixotasun batekin?. Marra jartzea zaila da. Inportantea dena da horrelako laguntzak ateratzea edo ikustea plazan zer dagoen, jendeak nola onartzen dituen edo behar hori ba dagoen. Oso jende gutxi apuntatzen bada beste zerbaite erabaki beharko da.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Bai honen arrakasta nola publizitzen dugunaren arabera era izango da. Nik norenek dakit hemen nagoelako, bestela herritar arrunta bezala ez dut informazio hori. Garrantzitsua da ondo publizitzea eta pentsatzen dut gizarte zerbitzuetatik ere bideratuko dela.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Aldizkari ofizialean argitaratzeaz gain, komunikabideetan era adieraziko da, baina denei ere ez zaie iritsiko.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): Guraso elkartearekin ere partekatzea ez da gaizki etorriko.”

Mikel Olano Guembe jaunak (Beasaingo EH Bildu), adierazi du Eusko Jaurlaritzak adinaren muga 14 urte arte zabaldu duela.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Eusko Jaurlaritzak 14 urte arte jarri badu, 14 jarriko dugu, izan ere 59 egunetik aurrera kontratazioarekin jarraitzen badute, Eusko Jaurlaritzara joko dute. Ez zait gaizki iruditzen denok parametro berdinak erabiltzea. Beraz, ados adina 14 urte arte izatearekin.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena aipatutako aldaketarekin.

- **Covid-19-ak eragindako ondorioak arintzeko Beasaingo establezimenduetan kontsumoa sustatzeko (bonuen bidez) dirulaguntzak.** 2020MEPO0035

Ezagutzera eman da Herritarrek batzordearen proposamena, hau da.

“Ondorengoak kontuan hartuta:

1. 2020ko urtarrilaren 30ean, Nazioarteko Osasun Erregelamenduaren Larrialdietako Batzordearen gomendioz, Munduko Osasun Erakundeko zuzendari nagusiak koronabirus delakoaren sorrera Nazioarteko Garrantzizko Osasun Publikoko Larrialditzat jo zuen.
2. Harrezkero. Nazioartea, estatuan eta gure autonomia erkidegoan antolatze eta euste neurriak hartu dira. COVID-19 gaixotasunari goiz antzemanez birusaren hedapena eteteko kasuak isolatu eta artatzeko, kontaktuen jarraipena egieko eta arriskuaren arabera gizarte gizarte urruntzeko neurriak sustatzeko.
3. Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, Covid-19ak eragindako osasun krisiaren Kudeaketa Alarma Egoera delaratu du.
4. Alarma egoera Esapiniar Estatuko Lurralde osoan deklaratu da eta herritarren konfinamendua ekarri du ondorio gisa. Konfinamendu garai honetan Espainiar Estatuak neurriak hartu ditu eta honek eragin zuzena izan du herritarrengan bai eta industria merkataritzan eta ostalaritzan ere, izan ere, lehen beharreko produktuak ez diutuzten komertzio eta establezimenduen itxiera ekarri du, horrek dakarren galera ekonomikoekin.

Hori dela eta, Beasaingo Udalak egoera larri hau aintzat harturik, COVID-19 pandemiak sortu dituen eraginak leundu eta Beasaingo merkatariei, ostalariei eta zerbitzuetakoei laguntza ematea erabaki du. Horretarako erosketa bonoak atera ditu.

LEGERIA APLIKARRIA

-Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra subentzioak emateari buruzkoa.

PROPOSAMENA:

Herritarrek batzordeak Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egitea.

Lehenik: Beasaingo Udalak COVI-19ak eragindako kalteak arintzeko eta merkataritza sustatzeko Beasaingo txikikazko merkataritzaritzako eta ostalaritzako establezimenduetan saltzeko erosketa bonuak atera ditu. Erosketa bono horien oinarriak onartzea eta deialdi publikoa egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuta.

Bigarrenik: Bonu horiek 50 eurokoak izango dira. Erosleak 30€ ordainduko du eta Udalak 20€. Ekimen honetara atxiki diren establezimenduetan salduko dira berauek eta merkatarik bakoitzari gutxienez 20 bonu banatuko zaizkio, guztiak saldu bitartean.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Apoyamos la propuesta porque la experiencia anterior ha sido positiva, aunque hubo alguna crítica en relación a lo que los comerciantes han tenido que adelantar, que espero que ahora haya sido solventada. No sabemos cómo estaremos en el 2021 por lo que medidas como esta y otras que también benefician a la ciudadanía nos parece positivo.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gu abstenitu egingo gara lehen ere egin genuen bezala. Bono sistema bakarrik ez zaigu nahikoa iruditzen. Batzordean proposamen pare bat egin genuen ikusita aurreko kanpainak izan zituen ondorioak. Proposatutako genuen beste bono mota bat ateratzea eta hostalariei ere bono sistemaren aukera ematea. Abstenitu egingo gara.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Dirua aurreratzearena baino da azkartasuna izatea ordaintzeko garaian. Asteetik astea ordaintzen joango gara. Lehenagokoak ez bezala orain denak 5 eurokoak izango dira. Orain artekoak arrakastatsuak izan dira eta bide bat badugu funtzionatu duena. Ea 120.000,00 €ko gastua eragin du bonoak merkataritzan eta 300 bat merkatariena iritsi da. Orain denei emango zaizkie bonoak. Lehen bakarrik eman zitzaizkien itxita egon zirenei. Pentsatzen da 320 merkatariei iritsiko zaiela. Horrek ekonomiari arindu bat ematen die. Horrezaz gain jendea herrian bertan gastatzeko ohitura itsasten zaio. Funtzionatu du eta zaoritzarrez ez da azkenekoa izango.

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu).

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin ondorengo erabakia hartu da:

COVID19-ak eragindako osasun krisiak sortutako ondorioak arintzeko Beasaingo establezimenduetan kontsumoa sustatzeko (bonuen bidez) dirulaguntzen deialdia.

1. XEDEA

Oinarri hauen xedea Beasaingo merkataritza sektoreari dirulaguntzak ematea da. Beheko establezimendu hauei:

- Txikikazko merkataritza
- Ostalaritza
- Zerbitzu sektorea

2. FINANTZIAZIOA

Deialdi honetako helburu diren dirulaguntzak finantzatzeko Udalak lehen dagoenaz gain beste 90.000 euroko kreditua aurreikusia du honetarako sortutako aurrekontu honetan: 0243.471.433.10.01 Dirul.Mer COVID19: bonuak.

3. ONURADUNAK

Beasainen helbide fiskala duten asmoko establezimenduak dituztenak.

4. DIRULAGUNTZAK ESKATZEN DITUZTENEN BEHARRAK

1-Establezimendua Beasaingo Udalerrian izatea.

2-Honekin batera doan eranskina beteta atxikita egotea. (Eranskina)

3-Dagokion JEZren epigrafean alta emanda egotea.

4-Udalarekin zorrik ez izatea.

5-Zerga betebeharretan, Gizarte Segurantzarekin eta Ogasunarekin eguneratuak egotea.

6-Atxikitako dendak konpromisoa hartzen du programara atxikita dagoela adierazten duen kartela saltokian ikusteko moduan jartzeko.

7-Udalak ordainketa egiteko kontu korrontearen zenbakia ematea.

5. BONUAK

- *Bonuen balioa: 50 eurokoa izango da. Bezeroak 30 euro ordainduko ditu eta Udalak 20 euroko (%40) ekarpena egingo du.*
- *Bezeroek bonuak erosteko tokiak: ekimen honi atxikitako establezimenduak.*
- *Bonuen erabilera: Bonu bakoitza erosi den establezimenduan erabili beharko da.*
- *Establezimenduek bonuak eskuratzeko tokiak: iGunea eta Bareak Merkatarik Elkartearen bulegoa.*
- *Bonu kopurua establezimendu bakoitzeko: gutxienez 20 bonu banatuko zaizkio merkatarik bakoitzari. Dena dela, horiek kontsumitzen direnean establezimenduek gehiago eskatuko balituzte, Udalak gehiago banatuko lizkieke guztiak bukatu arte.*

6. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ZURIKETA

iGunean astero saldutako bonuak eta beraiei dagozkien fakturak aurkeztu beharko dira.

7. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Laguntza horiek emateko nahikoa kreditu dagoela kontuan hartuta, 4.artikuluaren ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei emango zaizkie, eta 5. artikuluan adierazitako zenbatekoari.

Kultura, euskara eta merkataritza azpisailari dagokio aurreikusten diren laguntzak kudeatzea. Saileko teknikariak arduratuko dira aurkeztutako eskabideak aztertzeaz eta ebaluatzeaz. Alkatearen ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira laguntzak.

Ordainketa hileko 15ean edo 30ean gauzatuko da, bonuak eta beraiei dagozkien fakturak aurkeztu ahala.

8. ESKAEREN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan zehaztutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek emandako laguntzekin. Kasu horretan, Udalari jakinarazi beharko zaio.

9. BONUEN IRAUNGITZE-DATA

Bonuak 2020ko abenduaren 31 arte erabili ahalko dira.

10. OINARRIAK ARGITARATZEA

Oinarri hauek Osoko Bilkuran onartu ondoren, BDNSra bidaliko dira argitaratzeko eta ondoren GAO-n argitaratuko dira.

ERANSKINA

UDAL BONOEN PROGRAMARI ATXIKITZEKO DOKUMENTUA

D/D^a.....Jn./Jna.-k

AITORTZEN du hurrengo datuak benetakoak izatea

1. Establezimenduaren izena

2. Aktibitatea duenaren identifikazioa

.Pertsona juridikoa izanez gero: Izen deiturak:.....y IFZ:

.Pertsona fisikoa izanez gero: Izen deiturak:

.....eta NA:

3. IAEN alta emanda egotea dagokion epigrafean.

4. Udalarekin zorrik ez izatea.

5. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea..

Espreski baimena ematen dio Beasaingo Udalari hala behar denean, zuzenean Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari eta Gizarte Segurantzari eskatzeko beharrezkoak diren zerga datuak, dirulaguntza hauek eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla, egiaztatu eta datuak eguneratu ditzan.

BAI EZ

b.- MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKO PERTSONENTZAKO BEASAINGO LOINATZ EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ETA BEASAINGO

UDALERRIAN ETXEZ ETXKO LAGUNTZA ZERBITZUA. KALTEORDAINAK
KONTRATUA PARTZIALKI ETENDA EGOTEAGATIK. 2016BIBO0028

Alkateak aldeztu aurretik hitza emanda, Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV), proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

1.- 2020-03-27. GOXARA, S.L.Eren idatzia kontratuaren etetea eskatuz, ezinezkoa zelako gauzatzea.

2.- 2020-04-08. Plenoaren erabakia kontratua partzialki eteteari buruzkoa, .hau da:

- Eguneko Zentroko zerbitzua, osotasunean. Etetea 2020-03-15etik aurrera izango da (Sailburuaren Agindua indarrean sartu zenetik), osasun-krisia amaitu arte.

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua: ez da eteten.

3.- 2020-05-11 eta 2020-05-29. GOXARA, S.L.ren eskaerak etxeko laguntza eta eguneko zentroko zerbitzuengatik martxoaren 14an kontratuaren exekuzio arruntari atxikita zeuden langileei, Loinatz buruzkoa.

4.- 2020-06-04. Alkateak GOXARA, S.L.ri egiten dion errekerimendua ondorengo justifikatzeko: soldata-gastuak (nominak + ordainagiriak), ordaindu zaizkiela 2020ko martxoaren 14an kontratuaren exekuzio arruntari atxikita zeuden langileei, Loinatz eguneko zentroari dagokionez, 2020-03-15etik berriro zentroa ireki arte.

5.- 2020-06-19. Posta elektronikoaren bidez, soldata-gastuak aurkeztu ditu, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren jakinarazpen bat erantsi du, zentro horien titularrei plaza-erreserbari dagokion zenbatekoa ordaintzeari buruzkoa, baldin eta egiaztatzen bada eguneko zentroetako langileak eskualdeko egoitza-zentroen eskura jarri zirela.

6.- 2020-04-07. GOXARA, S.L.k Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utzi zituen Loinatz eguneko zentrorako plantillako langileak.

7.- Gipuzkoako Foru Aldundiak honako hau ordaindu dio Beasaingo Udalari (Loinatz eguneko zentroaren titularra), ondorengo diru kopuruak ordaindu dizkio, kontzeptu hauengatik:

- Martxoaren 16tik 31ra: % 75 plaza erreserbatzeagatik: 11.740,49 €.

- Apirilaren 1etik 30era: % 57,51 plaza erreserba eta langileak eskura jartzeagatik: 16.405,73 €

- Maiatzaren 1etik 31ra: % 59,47 plaza erreserba eta langileak eskura jartzeagatik: 17.342,61 €.

- Ekainaren 1etik 30era: % 75 plaza erreserbatzeagatik: 22.795,58 €

ONARRI JURIDIKOAK

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34,1 artikulua dioenez, kalte-galerak ordaintzeko, kontratistak kontratua exekutatzeke ezintasuna eskatu behar du, eta horrek, aldi berean, langileak beste kontratu batean enplegatzeke ezintasuna dakar.

Kasu honetan, enpresa kontratistak kontratua eteteko eskatu zuen, eta Udalbatzak onartu egin zuen eguneko zentroarekiko. Hala ere, ondoren, Aldundiak eskatuta, GOXARA, S.L.k eskualdeko egoitza-zentroen eskura jarri zituen Loinazko eguneko zentrorako plantillako langileak.

Plaza erreserba eta langileak eskura jartzeagatik eskualdeko egoitzetarako, apirilean eta maiatzean, Aldundiak 7. Aurrekarietan adierazitako zenbatekoak ordaindu dizkio Udalari.

Langile horiek beste kontratu batean enplegatu ahal izan balira, kontratu horren ordainsaria enplegatzailaren kontura izango litzateke, eta Udalak ez luke kalte-ordainik ordaindu beharrik izango.

Aldundiak ordaintzen du langileek egoitza-zentroetan lan egiteko duten prestasuna, baina haiei edo enpresa kontratistari ordaindu beharrearik, Udalari ordaintzen dio. Analogia aplikatuz, logikoa dirudi Udalak jasotako dirua GOXARA.S.L.ri transferitzea.

Horren ondorioz, Herritarrak Batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki PROPOSAMENA egiten dio:

Lehenengoa. GOXARA, S.L.ri eguneko zentroko langileen soldata-gastuen kalte-ordain gisa honako kopuru hau ordaintzea: 6.691,74€. Kopuru hori honela desglosatzen da:

1.- soldatak: 4.892,64 €, martxoaren 14tik 31ra.

2.- Gizarte Segurantzako kuotak: 1.799,10 €, martxoaren 14tik 31ra.

Bigarrena. Gipuzkoako Foru Aldundiak Udari ordaindutako kopurua (33748,34€) GOXARA S.L.ri transferitzea, plaza-erreserba eta langileak eskualdeko egoitzetara eskura jartzeagatik. Desglosea ondorengoa da:

1.- 16.405,73€ apirilari dagozkio.

2.- 17.342,61€ maiatzari dagozkio.

Hirugarrena. Ekaineko hilabeteak, martxoaren bigarren hamabostaldia izan duen trataera berdina izango du, baina horretarako beharrezkoa da kontratistak langileen soldaten ordainketa eta martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 34.1 artikulua aitapen dituen gastuak justifikatzea.”

Hitz egiteko txanda eman onodoren iritzi hauek azaldu dira:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk batzordean komentatu genuen bi proposamen ezberdin izan behar direla: bata kalteordainak ordaintzearena eta beste Aldundiak Udalari ordaindu dionarena, nahiz eta erlazionatuta egon. Guri ez zaigu argi geratu zergatik Aldundiak emandako dirua zuzenean GOXARari transferitu behar zaion. Egia da langileek bere prestutasuna azaldu zutela baina ez zuten lanik egin. Beraz enpresak ez zituen gasturik izan. Hori legez horrela da?.”

Malu Valles Fernández andreak (EAJ-PNV): “Porque las trabajadoras se pusieron a disposición de Diputación:”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Pero las trabajadoras no trabajaron.”

Malu Valles Fernández andreak (EAJ-PNV): “Goxara ha pagado esas nóminas.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Neri harritiko litzaidakena da Aldundiak horrelako balorazio bat egitea egoera horregatik eta bidean Udala diru horrekin geratzea guk beste interpretazio bat dugulako.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Hau ez da kalteordaina ez dagoleako justifikazio eta nominarik.”

Malu Valles Fernández andreak (EAJ-PNV): “Diputación ha pagado el 75% de lo que paga por reserva de plaza por esa disponibilidad de las trabajadoras para la residencia de Arangoiti y para el pueblo de Beasain. Eso tiene un coste y hay que abonarlo. Yo lo que no me pongo es a revisar las nóminas de las trabajadoras de Goxara. Eso hace la jefa del departamento. A mi no me compete. No tengo ninguna duda de que está bien.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Udalean ere onartu dugu %40 ordaintzea ireki ere ez diren zerbitzuetan.”

Gai behar adina tratatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH BILDU)

Horren odnorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

c.- MENDEKOTASUNA DUTEN ADINEKO PERTSONENTZAKO BEASAINGO LOINATZ EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ETA BEASAINGO UDALERRIAN ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA. KONTRATUA LUZATZEA.
2016BIBO0028

Alkateak alde zuzenetik hitza emanda, Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV), proposamenaren berri eman du:

“

AURREKARIAK

1.- Udalbatzak 2016-04-29an egindako bileran, Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako Beasaingo Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa eta Beasaingo udalerrian etxez etxe laguntza zerbitzuak, prozedura irekiaren bidez kontratatzeke deialdi publikoa egitea erabaki zuen eta horretarako dagozkion baldintza pleguak onartu zituen.

2.- 2016-07-28an Udalbatza Osoak erabaki zuen, GOXARA, S.L.ren alde esleipen proposamena egitea eta 2016-10-11n, behin betiko esleipen Ebazpena eman zen.

3.- 2017-11-07an GOXARA S.L. enpresarekin kontratua sinatzen da. Egikaritze epea lau urtetakoa da, urtebeteko bi epealditan luzatzeko aukerarekin. Luzapena espresuki adierazi beharko da eta eskumena duen organoak erabakia hartu beharko du.

4.- Alarma egoera aitortu izanaren arabera, Plenoak 2020-04-8an egindako bilkuran kontratua partzialki etetea erabakitzen du.

2020-06-29an kontratuaren etenaldia altxatzea Eguneko Zentroari dagokionez eta kontratua aldatzea erabakitzen da, Eguneko Zentroaren prestazioagatik ordaindu beharreko prezioa ezartzeko irizpideari dagokionez.

GINARRI JURIDIKOAK

- Mendekotasuna duten adineko pertsonentzako Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa eta Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzuak, prozedura irekiaren bidez kontratatzeke baldintza plegua.

Horren odnorioz, Herritarrak batzordeak udalbatza osoari ondorengo erabaki PROPOSAMENA egin dio:

Lehenik: Urtebeterako eta egungo baldintzetan, prezioa barne, GOXARA S.L.enpresari kontratua luzatzea, mendekotasuna duten adineko pertsonentzako Beasaingo Loinatz eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa eta Beasaingo udalerrian etxez etxeko laguntza zerbitzuak emateko.

Bigarren: Luzapena 2020ko azaroaren 7tik 2021eko azaroaren 6ra izango da.

Hirugarren: GOXARA S.L. enpresari erabaki honen berri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren bildutakoek iritzi hauek eman dituzte:

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Hasteko esan zerbitzu hauen publikotasunaren alde gaudela. Azpikontratatuta ez baleude gauzak beste modu batera izango lirateke. Orain dela hilabete batzuk langileengandik kexak jaso genituen eta erabaki genuen elkartzea ordezkariak duten sindikatuekin. Zalantzan jartzen dute GOXARAK bere langileekiko betebeharrak betetzen dituen ala ez. Aipatu zitzaigun enpresak ez zuela erantzuten sindikatuak egindako eskaerak, langileen ordezkariak lege dagozkienak ez dituela ordaintzen, soldatak berandu ordaintzen dituela eta langileei ez zailea inolako azalpenik eman.COVID-19 dela eta frogak eskatu eta eragozpen handiak izan omen dituzte. Zumarragan eta Ordizian zuen zerbitzua bertan behera geratu da. GOXARA ez da hemen azaldu nahi dena. Ordizikoa prentsan azaldu zen. Enpresak 27 €/orduak kobratzen zituen eta langileak 8,5 €. Guk ezin dugu babestu horrelako enpresa bat. Orain hasi gara azpikontratuta dauden zerbitzuei jarraipena egiten eta eskatuko genuke proposatutako kronograma horretan GOXARA izatea lehenengo aztertzen dena datu hauek guztiak kontrastatzeko. Ezin gara geratu bakarrik langileak esando hitzekin. ELA da sindikatu eta pare bat aldiz bildu gara beraiekin. Susmagarria iruditzen zaigu kointziditzen duela langileak eta ELAk egiten duten irakurketa. Ez dugu luzapena bere horretan ikusten.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Nik espero dudana da publikoa egitea Ordizikoa bukatzen denean zertan geratzen den. Hasi besterik ez da egin. Plegu batzuk atera zituzten eta pleguak behin lizitazioa egin eta gero aldatu egin zituzten. GOXARAK egin zuena izan zen plegu haiek esaten zutenari doitu. Enpresa bat susmotan jartzea oso erraza da datuak izan gabe eta usteak izanda. Enpresa bat horrela seinalizatzea ez zait zuzena iruditzen. Berrogei sindikatu ez ditu, bakarrik dago eta sindikatu horretan zuen zerrendetan doan pertsona bat dago, GOXARAKo langilea dena. Ez zait zuzena iruditzen. Batzordeak esaten duzue aztertu egin behar dela eta gero teknikariak jotzen duzue nominak ikusi nahian, jakinda datuak babesteko legea hor dagoela. Nire ustetan beste datu batzuk ere behar dira bere jokabidea zalantzan jartzen ari garenean.”

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV): “Yo creo que si las trabajadoras de la empresa GOXARA tienen algún problema tienen que acudir a la autoridad laboral. Nosotros como Ayuntamiento no podemos entrar en la negociación entre la empresas y sus

trabajadoras. Antes de la licitación si que me reuní con dos sindicatos y con las trabajadoras para mejorar las condiciones de la contratación, pero más allá de eso no.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Badirudi hitzarmena sinatu nahian dabiltzala, baina enpresak ezezkua esaten du. Hori nahiko adierazgarria da. Alkateari erantzunez esan, ez direla susmoak eta zuk esan diguzuna enpresa bat seinalatzen ari garelarena, zuk ere berdin egin duzu gure zerrendan doan pertsona batekin eta hemen zerikusia ez duenarekin. Nomina eskatzeari buruz esan guk ez dugula nahi langile bakoitzaren nomina bere izen eta datu guztiekin. Ikusi nahi duguna da soldatak lan hitzarmenera egokitzen diren. Gure asmoa ez da seinlatzea baizik eta informazioa izatea.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Eta eman ez zaizuezu datuak babesteko legea dela, horregatik seinalatzen duzue.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Datuak ditugu.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Nork emandakoak. Enpresa batek hitzarmena ez sinatu nahi izatea zuentzat esanguratsua da. Langileek beraien eskubideen alde egingo dute eta enpresak ere berea defendatuko du. Niretzat horrek ez du esan nahi gaizki ari direnik.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Bai baina Beasaingo Udalak ere nahiko du kontratatuta duen zerbitzuen baten langileak duintasun batekin lana egitea, ez?.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Bai pleguak egiten direnean, aurreikusten da lan hitzarmenak betetzeko moduan ateratzea.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Bai, baina gero ez da horren jarraipenik egiten.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): Zuk aurre iritzi bat duzu. Maluk esan dizu nominak begiratzen direla.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Orain arte esan duzue ez dela jarraipenik egiten eta orain esaten duzuen nominak begiratzen direla.”
Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Lizitazioa egiterakoan begiratzen da. Hilabetero ez baina orain prozedura bat martxan jarri da.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gu esaten ari gara susmoa dugula, baina zuk susmoa izanda ere ardura bat baduzu eta kezka izan beharko zenuke”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Gu hemen ari gara kontratua luzatzeko proposamena eztabaidatzen eta ez beste ezertaz.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Bai baina kontratu horrek baldintza batzuk ditu. Baldintzak ez badira betetzen zertan ari gara kontratua luzatzen?. Ezin da begiratu baldintzak betetzen dituen?.

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Dudarik gabe pentsatu nahi dut, salaketa jarrita egongo dela dagokion tokian hitzarmena ez bada betetzen ari.”

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV): “Nosotros lo que tenemos que sabe es que el contrato que tenemos con GOXARA, se cumple y sabemos que así. Nosotros estamos contentos con el transporte, con la comida y en definitiva con el servicio. Si las trabajadoras tienen problemas con la empresa deberán denunciarlos a los estamentos correspondientes. A día de hoy no conocemos que exista tal denuncia. Si vosotros lo sabeis, me gustaría que se me trasladara”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Ez hori bakarrik. Hitzarmena betetzen ez den enpresetan ez dugu horrelako zerbitzurik. Erabiltzaileek esaten dute zerbitzua txapela kentzekoa dela. Zerbitzuarekin jendea oso gustura dago. Hitzarmena betetzen ez den horretan eta pertsonekin lan egiten duenak, horrelako tratua ematen du?. Hori ez da ohikoa. Normalean hitzarmena betetzen ez denean langileek ere ez dute berdin jokatzeko.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Bai baina nik uste dut pertsonekin lana egiten dutenek oso ondo dakitela bereizten langileekiko dituzten arazoak eta bete beharreko funtzioak. Guk dugun informazioa ezagutzera ematen dugu eta horren ondorioz ez dugu ikusten kontratua luzatzearena.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Beraz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

d.- URA, ZABORRA, ESTOLDERIA ETA KIROLDEGIKO ZERBITZUAK ERABILTZEAGATIKO TARIFAK ORDAINTZEKO DIRULAGUNTZAK. EPEA LUZATZEA ESKAERAK AURKEZTEKO. 2020BIBO0014

Alkateak alde zuzenetik hitza emanda, Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV), Herritarrak batzordearen proposamenaren berri eman du:

“AURREKARIAK

1.- Ur- eta zabor-tasei eta udal-kiroldegiko zerbitzuak erabiltzeagatikoko tarifei buruzko laguntzak emateko udal-ordenantzak ezartzen duenez, uraren eta zaborraren tasei dagokienez laguntza eskatzeko epea urte bakoitzeko martxoaren 1etik 31ra bitartekoa izango da.

2.- Martxoaren 14an, Gobernu Zentralak osasun-alarmaren egoera dela eta, besteak beste, biztanleria konfinatzea agintzen du. Administrazio-epe guztiak etenda geratzen dira.

3.- Udaleko iGuneak lanean jarraitzen du, baina ateak itxita eta hitzorduekin.

4.- Alarma egoera amaitu ondoren, administrazio-epeen zenbaketari berrekin zaio. Horrela, ekainaren 4ean Beasaingo Udaleko web orrian argitaratzen da ekainaren 1etik 17ra irekitzen dela tasen arloko laguntzak eskatzeko epea.

5.- Salbuespenezko egoera honen ondorioz, pertsona batzuek ez dute laguntza-eskaerak aurkezteko epearen berri izan.

6.- *Laguntza horiek finantzatzeko sortutako partidan kreditua dago eta ahalik eta pertsona gehienek jaso ahal izateko, COVID-19k sortutako krisi ekonomikoa dela eta, beste epe bat irekitzea proposatzen da.*

OINARRI JURIDIKOAK

- *Udal kiroldegiko zerbitzuak erabiltzeagatiko ur eta zabor tasen eta tarifen inguruko laguntzak emateko ordenantza.*

PROPOSAMENA

Herritarrek Batzordeak ondorengo erabaki-proposamena aurkezten dio Udalbatzari, azter dezan:

Uraren eta zaborraren tasen arloko laguntzak eskatzeko epea berriro irekitzea (2019ko gastua), 2020ko azaroaren 16tik abenduaren 5era."

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

e.- GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK. UDAL IRIZPIDEEN ALDAKETA LAGUNTZA HORIEK EMATEKO. 2020BIBO0003

Alkateak alde zuzenetik hitza emanda, Malu Vallés Fernández andreak (EAJ-PNV), Herritarrek batzordearen proposamenaren berri eman du:

"AURREKARIAK

I. Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak honako baliabide hauek arautzen ditu: bazterkeria-arriskua prebenitzekoak, bazterkeria pertsonala nahiz gizarte- eta lan-arloko bazterkeriako egoera arintzekoak eta gizarteratzea erraztekoak. Horien artean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) daude.

II. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politikarako Departamentuak urtero GLLtako kontzeptu bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak eta Udal bakoitzarentzako aurrekontu-mugak ezartzen du.

III. Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 88.d) artikulua arabera, Udalen eginkizuna da laguntza horiek onartu, ukatu eta ordaintzea.

IV. 2020. urte honetarako, Eusko Jaurlaritzak Beasaingo Udal herriarentzat ezarritako aurrekontu-muga 93.038€koa da; GLLko eskaeretako kontzeptu guztiak atenditzeko kopuru exkaxa delarik. Hori dela eta, laguntza hauek emateko beharrezkoa da udal irizpideak ezartzea.

OINARRI JURIDIKOAK

- *-Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea.*
- *-Agindua, 2019ko abenduaren 17koa, 2019. 2020 Urtean GLLtako gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak eta Udal bakoitzeko aurrekontu-mugak ezartzen duena.*

PROPOSAMENA

Herritarrek Batzordeak Udal Osoko Bilkurari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

2020ko GLLk emateko proposatzen diren udal irizpideak onartzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Estamos de acuerdo, porque con ello se cubren más necesidades.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Gu ere ados gaude proposatzen diren irizpide berri horiekin eta herritar gehienei iristeko saiakera horrekin.”

Bozketa eginda, aho batez onartu dira ondorengo irizpideak gizarte larrialdietarako laguntzak banatzeko:

2020ko aurrekontua: 207.760,00€

Kopuru erabilgarria: 128.739,33€

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak banatzeko 2020-02-27ko Osoko Bilkuran onartutakoen inguruan proposatutako irizpideen aldaketak.

ONARTUTAKO IRIZPIDEAK	ORAINGO ALDAKETAK
<u>0.Baldintza orokorrak</u> .Aurkeztutako fakturei %15eko murrizketa. .Lehentasunezko kontzeptuak ondorengoak izango dira: -Alogera -Hipoteka -Energia -Etxeko mantenua -Ikastaro eta formazioetarako garraiotik ondorioztatutako gastuak	<u>0.Baldintza orokorrak</u> .Aurkeztutako fakturei ez zaie murrizketarik aplikatuko. .Lehentasunezko kontzeptuen artean ere sartzen dira: - OHZ - Altzariak erostea - Betaurrekoak erostea - Dentista gastuak
<u>1.Alogerako gastuak</u> .Etxebizitza osoa alokatzen denean gehienez hileko kopurua 212,50€ eta 106,25€ alokairua logela batengatik edo etxean maizter bat baina gehiago badago .	<u>1.Alogerako gastuak</u> .Etxebizitza osoa alokatzen denean gehienez hileko kopurua 250€ eta 125€ alokairua logela batengatik edo etxean maizter bat baina gehiago badago .
<u>2.Etxebizitza erosteko eskatutako kredituen interes eta amortizazioek eragindako gastuak</u> . Hileko kopurua gehienez 212,50€	<u>2.Etxebizitza erosteko eskatutako kredituen interes eta amortizazioek eragindako gastuak</u> . Hileko kopurua gehienez 250€
<u>3.Energia gastuak</u> .Hileko kopurua gehienez 50€	<u>3.Energia gastuak</u> . Hileko kopurua gehienez 75€
<u>4.Altzari eta etxe tresna elektrikoek</u> <u>gastuak</u>	<u>4.Altzari eta etxe tresna elektrikoek</u> <u>gastuak</u>

.Kontutan hartuko diren etxetresnak honakoak dira: -Garbigailua -Hozkailua -Erauzgailua -Labea -Plaka -Mikrouhin labea	.Kontutan hartuko da ere altzarien gastuak , gehienez 500€ (salbuespenak baloratu ahal izango dira).
<u>5.Konponketak eta oinarritzko instalazioen gastuak</u> . Gastu hauek urte amaieran baloratuko dira.	<u>5.Konponketak eta oinarritzko instalazioen gastuak</u> .Ez da aldatzen.
<u>6.Etxebizitzaren erabilerako eta mantentzeko gastuak</u> .Komunitateko kuotagatik hileko kopurua gehienez 50€ .Etxeko aseguruagatik kopurua gehienez 100€	<u>6.Etxebizitzaren erabilerako eta mantentzeko gastuak</u> .Kontzeptu honetan barne dauden gastuetarako (komunitateko kuota, etxeko aseguruua eta OHZ) urteko kopurua gehienez 900€
<u>7.Oinarritzko premien gastuak</u> .Sistema publikoek estaltzen ez dituzten oinarritzko beharrei dagozkien gastuak ordaindu ahal izango dira. .Gastu hauek urte amaieran baloratuko dira.	<u>7.Oinarritzko premien gastuak</u> .Lehentasuna izango duten gastuak : -Betaurrekoen erosketa: gehienez 250€ -Dentistako gastuak: gehienez 300€
<u>8.Aurretiaz izandako zorpetze-gastuak</u> . Aurreko urteetan eragindakoa edo eskaera egin aurrekoak badira.	<u>8.Aurretiaz izandako zorpetze-gastuak</u> .Kontutan hartuko da ere: COVID-19ak sortutako alarma egoerak eragindakoa.
<u>9.Justifikazioak</u> .Fakturak hilabete bakoitzeko 20tik 23ra bitartean aurkeztu beharko dira.	<u>9.Justifikazioak</u> .Ez da aldatzen

4.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK.

a.- HIRIGINTZAREN ARLOAN ETA UDAL-ONDAREARI DAGOKIONEZ LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO KONTRATAZIOA. 2020IDB00029

Alkateak alde zuzenetik hitza emanda, Leire Artola Ugalde andreak (EAJ-PNV), Lurralde batzordearen proposamenaren berri eman du: "Beasaingo Udalaririk hirigintzaren arloan eta udal-ondareari dagokionez laguntza tekniko emateko zerbitzua kontratatzeke plegua dakarkigu onartzeko. Eginkizunak bi gai horiekin erlazionatutakoak izango dira. Horretarako kontratua gauzatzeko ardura izango duenak, arkitekturako goi mailako titulua izan behar du, Elkargoan kolegiatuta egon behar du eta 4. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea ere bai. Zinegotziekin, udal langileekin eta herritarrekin ahozko nahiz idatzizko harremanetan erabili behar duen hizkuntza lehentasunez euskara izango da eta txostenak bi hizkuntzetan egin behar ditu. Herri eragiten duen hizkuntza tekniko menperatu izan beharra eta hori da, hain zuzen ere, arrazoia 4. hizkuntza eskatzearena. Lizitatuak pertsona juridikoa izango balitz, kontratua egikaritzeko duen pertsona izendatu behar du, guk hemen beti arkitekto berdina izateko. Dendakionari dagokionez, zerbitzua printzipioz udaletxean emango da, COVID egoera tarteko, eta astean bi

egunetan ematea proposatzen da 8 orduko lanaldiarekin, goizez eta arratsaldez. Kontratua 3 urterako esleituko da eta da 2 urtebeteko luzapena egiteko aukera egongo da. Lizitazioaren aurrekontua ea 42.000,00 €/urtekoa da gehi BEZ eta bost urteko kontratuaren balio estimatua 210.000,00 e gehi BEZera eramaten gaitu. Irizpideak baloratzerakoan, prezioari 20 puntu ematen zaizkio, azkeneko hamar urteetako eskarmentuari (administrazioan edo administraziotik kanpo), 64 puntu, formazioari 12 puntu eta hobekuntzari 4 puntu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Hay que revisar el pliego porque en algún punto dice que el perfil es el 3. Nosotros no estamos a favor de que el perfil lingüístico sea el 4 porque ello implica limitar la concurrencia y porque con el perfil 3 creemos que también se garantiza las relaciones con la ciudadanía en euskera. Respecto a la elaboración de informes, pensamos que el título habilitante en arquitectura y la experiencia, ya lo acredita. En otros Ayuntamientos como Zestoa o Zumarraga han exigido el 3 y entendemos que las funciones serán las mismas.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Hizkuntzaren perspektiba batetik begiratu behar da hau. Gaur egun hizkuntza eskakizunik gabe ere, traduktorean sartu eta egiten ditugun testu teknikoak euskarazko marran jarriko genituzke eta gaur egun pasatzen den bezala hemen eta atrebitzen naiz esaten hemendik kanpo ere, euskaraz ez dago ama-semerik ulertuko duenik, horrelako hizkuntza teknikoak. Hori da gizarte honek dugun gabezieta bat. Hori esaten dut zeren eta saiatu behar gara hizkuntza tekniko ulergarriago bat egiten eta hori 4Plek ematen du, 3Plak herritarrekin hitz egiteko ematen dizu, baina teknikoki ondo idazteko nahiko lan. Perspektiban begiratu behar da eta euskaraz bizi nahi dugunok ere, badugu eskubidea testuak itzulpen neuronal batek egindakotik haratago ulergarria den hizkuntza bat irakurtzeko. Gaur egun hori ez da ematen.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Lo que ocurre es que ese tipo de documentación ni siquiera lo puede entender una persona de a pié. El problema no es que se entienda en euskera, sino tan siquiera en castellano.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Baina saiatu zaitez gaurko gai-zerrenda hartu eta kendu erderako aldea eta irakurri euskaraz. Kontua da, zu zer ulertzeko zara gai?. Hori da diferentzia, 3. hizkuntza eskakizunetik 4.era.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “A mi me da la sensación de que lo que pones en tela de juicio es la capacidad de esos trabajadores. La capacidad de hacerlo en euskera técnico lo adquieren en la carrera.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Sin lugar a dudas lo pongo en tela de juicio.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Yo creo que la carrera te forma para eso.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Zoritxarrez lizentziatura batek ez ditu euskaraz behar diren baliabideak ematen. Ikasketa teknikoak egiten dira, baina horiek ez dute ematen 4. hizkuntza eskakizunak ematen duena. Apustua luzera begira egin behar da. Nik uste dut gizartean dugun arazoetako bat dela. Hizkuntza gutxituen alde egin nahi bada horrelako erabakiak hartu beharrean gaude.”

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Nosotros apostamos por un PL3, porque con ello se tiene la capacidad suficiente para relacionarse con las personas ya que la propia titulación le da la capacidad técnica para elaborar los documentos. Creemos que el profesional lo seguirá siendo con PL3 o con PL4. No estamos a favor porque con lo que se propone se limita la concurrencia.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Bere horretan 3. hizkuntza eskakizuna ere mugatzailea da. Marra non jartzen den da gauza. Esatea 3 HE batekin aisa idatzi ditzazkezu txostenak ulergarriak izan ditezen, nik esango nuke esperientziak ezezkoa esaten digula.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Guk 4 HEekin ados gaude eta baita ere eskarmentua azken 10 urtetakoa kontuan izatea, guk geuk eskatuko genuelako batzordean, baina lanpostuari buruz esan EH bilduk betidanik defendatu duela arkitekto bat modu estrukturalen izatea udalaren plantilan. Iruditzen zaigu horrelako proposamenak, saihestu egiten dutela horrelako neurriak hartzea. Abstenitu egingo gara. Batzordean ere baldintzei buruz aipatu genuen 8 ordutako ihardunaldia arritu egiten zigula, egokiagoa izango zelako bi egunetan egon ordez egun gehiagotan egotea eguneo ordu gutxiago eginez. Izan ere denok dakigu praktikan Administrazioan goizez egiten dela lana. Esan zitzaigun horren arrazoiak zela herritarrei arreta ematea, baina normalean arratsaldean egiten diren kontsultak oso gutxi dira. Ez da herritar asko etortzen arkitektoarekin hitz egitea.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Behin eta berriz aipatzen ari zarete Bildun jarrera zein den, baina zuek hemen egon zarete eta egin zenuten kontratazioa ez zen Plenotik pasa. Hiru enpresei gonbidapena bidali zitzaizen publiko egin gabe. Kasualidadea hirutik bi ez ziren presentatu eta negoziatuaren bidez bat kontratatu zen eta bat hori oker ez banago gastu muga batekin, 30.000,00 €. Hiru urte eta erdian, 364.000,00 € fakturatu zion Udalarari. Aukera izan zenuten beste modu batean egiteko. Egia da oposizioan gaudenean modu batetara pentsatzen dugula eta hemen gaudenean ahal dena egiten da.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ-PNV)

Aurkako botoak: 2 (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

Abstenzioak: 5 (Beasaingo EH Bildu)

Horren ondorioz, gehiengo osoarekin onartu da proposamena.

5.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Azaroak 25. Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna.

Alkatea jaunak esan du, gaia mahai gainean utziko dela azaroaren 25 gertuago denon artean adostaturako zerbait publiko egiteko.

5.- BERRI EMATEA:

Ezagutzera eman dira, emandako Ebazpenak adierazten diren epean.

- 2020ko irailaren 28tik 2020ko urriaren 25era bitarte emandako Ebazpenak.

- Kontratu txikiei buruz, 2020ko irailaren 28tik 2020ko urriaren 25era bitarte emandako ebazpenak.

7.- ESKAERA ETA GALDERAK

COVID-19 DELA ETA HERRITARREI ZUZENDUTAKO FROGAK

Eva Alvarez Atanes andreak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak): “Quería dar a conocer el malestar que se ha generado en la población con motivo de las pruebas de cribado de la COVID-19. El día 22 era para las personas entre 13 y 40 años con cita previa. De repente se decide que pueden participar también otras personas que no estén en esa banda de edad y también para empresas cuyos trabajadores no sean de Beasain, pero con cita previa. Pero esto al parecer no fue así y empezaron a atender a gente sin cita y lo que ocurrió es que quienes la tenían tuvieron que esperar a ser atendidos más tiempo del previsto. Al final acudió la policía municipal a poner orden ya que la fila llegaba hasta el Ayuntamiento. Creo que nosotros tenemos que evitar que se den este tipo de situaciones y garantizar que las aglomeraciones y distancias de seguridad se cumplan.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Guk antolaketa horretan zerikusirik ez dugu. Dirudienez hiru egunetan 1.300 froga egiteko ekoizpena zuten antolatuta. Lehenengo egunean bederatziehun eta piko joan ziren, bigarrenengoan ere bai eta azkeneko egunean bakarrik 200 pertsona zeuden apuntatuta. Neri trasladata zitzaidana izan zen jendea konbokatze nahiz eta 40 urtetik gorakoa izan eta zitarik gabe joan ezkerere erantzungo zitzaiola. Baina gero pasatu zena zen herriak oso ondo erantzun zuela eta telefonoak kolapsatu egin zirela, kolak sortu eta nahiz eta hasieran esan zitarik gabe izango zela, gero ez zuen zitarik gabe onartu baina zitak ere agortu egin ziren. Nik esango nuke, jendea ilaran zegoela baina distantziak mantendu zirela. Ez zen espero jendearen erantzuna horrelakoa izatea. Azkenean 1.400 pertsona pasa ziren.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Udalari egin zitzaion eskaera bakarra zein izan da?. Bakarrik espazioa edo baita ere beste laguntzarenbat?. Antolaketa aldetik esan nahi dut.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Baliabide materiala, hesiak, itxiturak etab, baina baliabide pertsonalik ez.”

Nerea Manzisidor Mendizabal andreak (Beasaingo EH Bildu): “Plenoka egiteko modua. Uste dugu presentzialak erraztu egiten duela parte hartzea baina gauden egoerak eskatzen du modu telematikoan egitea. Gu horren alde gaude, datuak horrela jarraitzen badute behintzat.”

Alkate jaunak (EAJ-PNV): “Horrek ez nau gehiegi kezkatzen denon adostasuna eogn ezkerere. Gehiago kezkatzen nau gaur bertan norbaitek positibo ematea eta telematikoki parte hartzeko aukera ez izatea. Hau da modu misto baten egiteko aukera ez izatea. Araudi minimo bat onartuta izan beharko genuke plenoa modu horretan egiteko. Nik proposatzen dizuet denon artean minimo hori adostea.”

Bukatzeko Alkateak esan du, oposizioak galdetuta, kargua uzteko lehenik eta behin aurrekontuak onartuta utzi nahi lituzkela.

Eta tratatzeko besterik ezean bilera zortziak eta erdietan amaitu da eta nik idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.